

El conflicto foral

No hablamos de la Gamazada. Ni tampoco de las guerras carlistas, en las que la defensa de los fueros arrastró a la población al bando carlista de modo masivo. Casi dos siglos después, y cuando ya no hay Fueros (por mucho que se los invoque), la polémica sigue acompañando estos debates de actualidad. La actualización del Derecho Civil Foral de Navarra, conocido como Fuero Nuevo, ha sido recurrida por el gobierno de Pedro Sánchez. Y de modo urgente. Perentorio. Ha sido, de hecho, la primera resolución que toma el flamante “gobierno progresista” que acaba de constituirse. Había prisa, significativamente cuando en la aprobación de este código civil se habían puesto de acuerdo todas las fuerzas navarras, incluida la familia socialista que gobierna en ambos territorios.

Sin entrar en esta cuestión coyuntural, ¿qué tiene de foral el actual ordenamiento navarro? ¿Qué queda en las actuales instituciones que nos lleven a conservar un título que es poco más que un florero? ¿Qué sabemos de los Fueros, de cuál era su significado, qué entrañaba para una colectividad que una y otra vez se echó al monte para defenderlos?

Como otros años, Nabarralde organiza un curso on line que, en cuatro lecciones, explica y detalla el significado original de este concepto. Su evolución, sus distintas formulaciones históricas, el Fuero General, el Fuero Viejo, los Fueros territoriales, los fueros de población, etc. Bajo la dirección del catedrático José Luis Orella Unzué, la materia de este curso nos permite entender el significado profundo de estos debates históricos y del presente.

Historiaren ispilu ahurra

Memoria kolektiboa ez da objektiboa. Iraganeko gertakariak ditu lehengai, baina gertakari horiek informazio iturri desberdinetatik heltzen dira, puzzlea osatzeko kontakizun baten pieza solteak bailiran. Pieza horiek, gainera, kostata txertatzen dira maiz, eta hauen artean gelditzen diren hutsuneak irudimenaren argamasaz osatzea besterik ez zaigu gelditzen. Irudimen hori, noski, logika teorikoan oinarritu beharko da fidagarria suertatuko bada, ez fantasian. Puzzlea nork osatu, hartara, azken emaitza desberdina suertatu ohi da. Hor dago kokka, hor norberak bere irudia, norberaren historia propioa osatzearen garrantzia. Gure herriaren historia kontatzen dugunean, ispilu ahur baten aurrean bagina bezala, ikuspegia aukeratzen dugu, hautuaren arabera isla desberdina izango baita.

Aitzitik, historiaren balioa gaurko “gu” eraikitzekeo prozesua ezagutzearan datza, gure hizkuntza eta ondareekin, gure gizartea definitzen duen kultura sozial eta politikoarekin eta askotan sufrizten ditugun gatazkekin. Nor garen eta zergatik garen hala, hemen eta orain, azaltzeko eta ulertzeko tresna da, eraiki nahi dugun etorkizuneari lagungarria. Ez dago, izan ere, etorkizunik, bere identitatearen pertzeptzio garbirik ez duen gizarte batentzat.

Herri orok, bestalde, behar ditu bere mugarrak, sinboloak, historia sostengatuko duten oinarri sendoak: Zeintzuk dira Nafarroako historian erabakigarriak suertatu ziren pertsonaiak?



Gure herriaren historia kontatzen dugunean, ispilu ahur baten aurrean bagina bezala, ikuspegia aukeratzen dugu, hautuaren arabera isla desberdina izango baita

Nortzuk etorkizunaren norantza bideratu zutenak? Zeintzuk dira gure memoria lekuak, gure kontakizuna gordetzen duten geografiaren txokoak? Hizkuntzak noraino definitzen gaitu? Zeintzuk dira gure kronologian azpimarratu beharreko urteak? Guzti horiek zehaztutakoan aukeratzen ditugu ispilu aurreko kokalekuaren koordenadak eta, ez hori bakarrik, gure historia desitxuratu nahi duten orenen aurrean babesleku bilakatzen ditugu.

Jakin baitakigu, garaileek garaituen memoria ezabatzeko joera dutela. Historiaren egin-kizuna oroimena bere lekuan

jartzea da, batez ere gurea bezalako kasu batean non, garaileak, gertakariak manipulatu, gure oroimena desitxuratu eta haien sistema kultura, sozial eta politikoan integratzen saiatu baitira, kosta ahala kosta.

Nabarralde Fundazioak gure memoria historikoari ekarpen bat gehiago egingo dio bere hurrengo argitalpenarekin, hain zuzen gure herriaren historian erabakigarria izan zen urte baten garrantzia azpimarratzeko, 400 urte betetzen direnean: 1620, Nafarroari bere independentzia behin betirako kendu zioten urtea.

: HISTORIA LABURRA

La actividad armada de Gipuzkoa en la conquista de Navarra (1512-1524)

José Luis Orella Unzué

nabarralde

: HISTORIA LABURRA

Emakumeak historian.
Mujeres de Vasconia • Navarra • Euskal Herria

Xosé Estévez

nabarralde

: HISTORIA LABURRA

Las mabinadas en Euskal Herria (S. XVI-XIX)

Xosé Estévez

nabarralde

: HISTORIA LABURRA

“Gure historiako pasarte eta pertsonaia handiak, formatu txikian”

9,50 €

Nabarralde · info@nabarralde.eus · www.nabarralde.eus · Tel. (34) 948 21 10 57 · Bidankoze kalea 3 · 31014 Iruñea NAFARROA · LG: NA-2449/2005 · ISSN. 1885-2181

Euskal herriko historia eta nortasuna mintzagai Bergaran, otsailan eta martxoan

Euskal historiaren eta oroimen historikoaren inguruko gogoeta analitikoak sustatzea du helburu ikastaroak
Izen-ematea irekita egonen da otsailaren amaiera arte

Nabarralde

Euskal Herriko historia eta nortasuna izenburupean, otsailan eta martxoan zehar Bergaran erakusketa bat, hiru hitzaldi eta ikastaro saioak biltzen dituen egitaraua antolatu du Nabarralde Fundazioak eta Bergarako Udalak. Helburua, antolatzaileek azaldu moduan, "bere iragana ahaztu duen euskal lurraldearen eta historiaren kontaketa berreskuratzea" izango da. Olaso Dorrea Fundazioaren laguntzarekin antolatu da egitaraua.

Nazioak desagerrarazteko egiten den lehenengo gauza haien memoria ezabatzea dela esaten zuen Milan Kunderak. Horretarako, nazio horren kultura eta historia suntsitu eta beste kultura eta historia bat inposatzen dira. Historia berriazten da, jatorrizko nazioak zer eta nor diren ahaztu arte.

Hurbilekoa dugu errealitate hau Euskal Herrian eta barneratu ditugun berriatzen gertakariak

Historia da gizarte batek bere buruaz egiten duen kontakizunaren osagarri garrantzitsuenetako bat

ugariak dira: Nafarroa Gaztelari libreki batu zitzaioala uste izan dugu, baita itsasaldeko lurraldea erresumatik banatu zela bertako erregea ez zuelako onartzen. edota euskararen atzerakada utzi-keriagatik izan dela eta ez galarazi zigutelako. Bitartean, gure historiaren eta identitatearen muga-

EGITARAUA

ERAKUSKETA

"Nafarroa, Euskal Estatu"

Otsailaren 2tik 16ra, Udaletxeko Pleno Aretoan

Euskal Herriko historiaren gakoak eskaintzen dituen erakusketa: lurraldetasuna, oinarriko datak, pertsonaiak, gertaera garrantzitsuak, e.a. Nabarraldek mendeetako euskal historia laburtu du, azken mila edo mila eta bostehun urteetan nafar Estatuaren inguruan aritu baita; funtsezko elementuak aurkeztea da helburua, erakusketa argiaz, esanguratsuz, eta batik bat, pedagogikoaz.

HITZALDIK

Otsailak 4, (asteartea), 19.00etan, Udaletxeko pleno aretoan.

"Nafarroa, Euskal Estatu" erakusketaren aurkezpena. Hizlaria: Iñigo Larramendi

Otsailak 11 (asteartea), 19.00etan, Olaso Dorretxean

"Arantzazu, harriz herri", dokumentalaren aurkezpena. Aurkezlea: Angel Rekalde

Otsailak 18 (asteartea), 19.00etan, Olaso dorretxean

"Euskararen historia" hitzaldia. Hizlaria: Juan Martín Elexpuru

IKASTAROA

"Euskal herriko historia"

Martxoaren 3tik 24ra. Asteartero, 19.00etik 21.00etara, Olaso dorretxean. Irakaslea: Beñi Agirre. Izen-ematea zabalik, otsailaren 29ra arte. Matrikula: 20,00euro. www.nabarralde.eus // Bergarako Udaleko Kultura Zerbitzua.

rriak ezagutzea galarazi digute, hain zuzen herri bezala eraikitzen gaituzten oinarriak kenduz.

Gure lurraldearen eta historiaren kontaketa berreskuratzeke eta ahanzturari aurre egiteko helburuarekin, Nabarralde Fundazioak eta Bergarako Udalak egitaraua zabala antolatu dugu: Nafarroa, euskal Estatu erakusketa; otsailan zehar eskainiko den hitzaldi sorta; eta martxoan emango den Euskal Herriko historia ikastaroa.

Ikastaroaren helburua, Euskal Herriko historian erabakigarriak izan diren gertakariak berreskuratzea izan da. Izen-ematea irekita mantenduko da otsailaren amaiera arte, eta martxoan zehar eskainiko dira lau saioak, asteartetan.

Hitzaldiei dagokienez, gertakari historiko eta memoria leku garrantzitsuak izango dira mintzagai, Iñigo Larramendi, Angel Rekalde eta Juan Martín Elexpuren eskutik.

BEÑI AGIRRE, ikastaroko irakaslea:

"Gure historia osoaren zertzelada nagusi bat ematea da ikastaroaren helburua"

Lehenengo aldia da Bergaran ikastaro presentzial hau eskaintzen duzuela. Zer nolako ikastaroa izango da?

Antzin Arotik XX.. menderainoko bilakaera aztertuko dugu, atalez atal, pausoz pauso. Beti ere, historiari behar duen herri oroimen historikoaren laguntza. Hau oso gutxitan landu izan da, historialari batzuk eta nazioko pertsona jakin batzuk baino ez. Ikastaroa berritzailea izango da ikuspuntu honetatik. Zalantzarik gabe.

Zein da ikastaro honek gure historiaren inguruan eskaintzen duen ikuspegia?

Gertakizun historikoak dira, ez da alde horretatik ustekabe handirik izango. Kontua da, gehienetan, kanpoko jendeak kontatu izan duela gure historia, euren ikuspegitik eta eurak subjektu historikoaren gunean jarrita. Horregatik, adibidez, 1512ko gertaerak Espainiako osaketan bilakaera natural baten une bat bezala ikusten dute batzuek, alboan utzita, garai horretan orduko Nafarroa bitan banatu zela Garaia

eta Beherea. Haien zatitza gauza naturala, guretzat galera mingarria. Haien zatitza berdin harteko elkartzasuna, guretzat konkista onartezina. Egindako gizarte lanari eta historiaren subjektua nafarren ikuspegitik kontatzeari esker, gaur egun denok dakigu konkista izan zela.

Zeintzuk izanen dira eskainiko dituzuen gaien gako nagusiak?

Gure historia osoaren zertzelada nagusi bat ematea da helburua. Nafarroa izan zela eta izan zena askok ukatzen duten arren, herri honek berezko presentzia izan du historian; lurralde fisiko oro har egonkorra. Euskal Herriaren mapa Nafarroa izan zen haren guneko murrakia baino ez da. Bertan sortu eta garatu den kulturak ezaugarri jakin batzuk ditu, hizkuntza propioa, batzar eta auzolanean oinarritutako erakundetze oparua; erresuma izateko Estatu subiranoa eta independentea; izena zuena: Nafarroa. Hau dena saio gutxi batzuetan laburtzea ezinezkoa da, bai-

na, ikuspuntu ezberdin batetik errelatoa egiten denean erraza da ulertzea. Denak du lotura, puzlearen atalak txertatzen hasten dira automatikoki eta ikuspegi orokorretik gertaera konkretuak ulertzea izugarri erraza bihurtzen da.

Beste lekuetan eskaini izan duzue aurretik ikastaro hau. Zer nolako esperientzia izan da, batez ere ikasleei dagokienez? Zein izaten da euren iritzia?

Ikasle gehienek gure historiaren errelato berri bat entzuten dute. Lehendik hainbat gauza jakinak bezala jotzen badute ere mito asko erortzen zaizkie. Adibidez, Antso III.ak euskaldunen lurraldea ia osoa batu eta boterea ezarri ondoren, erresuma semeen artean zatitu zueneko. Alboko Estatuek euskal nafar erresuma konkista bidez murrizteko kupidarik ez dutela izan ulertzean, ikuspegia aldatu egiten zaie erabat. Biziki eskertzen dute ikasitakoa eta gehiago jakiteko griña sortzen zaie. Ikasitako ez dutela ahaztuko diote.

EUSKAL HERRIKO HISTORIA IKASTAROA

Lekua: Bergarako Olaso Dorretxean

Data: martxoaren 3tik 24ra

Ordutegia: Asteartero, 19.00etik 21.00etara

Irakaslea: Beñi Agirre

Egitaraua:

1. ATALA (martxoak 3) Sarrera eta historiaurrea
2. ATALA (martxoak 10) Orreagako guduak eta Iruñea-Nafarroako erresuma
3. ATALA (martxoak 17) 1200 eta 1512 konkistak. Nafarroa Behera eta Iparraldea. Foruak
4. ATALA (martxoak 24) Karlistaldiak eta XX. mendea

Izen-ematea: www.nabarralde.eus eta Bergarako Udala Kultura Zerbitzuan, otsailaren 28ra arte. Prezioa: 20 euro

VII. Edición del curso online 'Los Fueros'



Nabarralde

La Fundación Nabarralde pondrá en marcha una nueva edición del curso online "Los fueros", que se desarrollará entre el 4 y el 25 de marzo. El plazo de inscripción permanecerá abierto hasta el 29 de febrero en la página web de Nabarralde. El curso se podrá realizar en euskara o castellano, y

al finalizar el/la alumno/a recibirá un diploma acreditativo del curso.

Dentro del debate histórico que gira alrededor de los fueros hay una gran confusión en torno al significado de los mismos. En Navarra, el prestigio de los fueros llega hasta el punto de que las instituciones se definen 'forales',

aunque su naturaleza subordinada, dependiente de la soberanía española, choque frontalmente contra el espíritu mismo de la concepción foral originaria. Vivimos una época en la que los cambios políticos y las nuevas estrategias de gobierno ponen en peligro, más que nunca, las posibilidades de autogobierno y la soberanía de la sociedad.

Por otro lado, la evolución del modelo foral básico derivó en una comprensión de las relaciones entre la sociedad vasco-navarra y el Estado español que giraba alrededor de este modelo. Hasta tal punto que cuando Sabino Arana rompe con este modelo en el siglo XIX, se sustenta sin embargo en muchas de las premisas del paradigma foral.

Nabarralde considera que es necesario clarificar la cuestión, llevando el debate a sus fundamentos, y para ello ha organizado un curso de estudio, análisis y explicación de lo que supone el modelo foral que se impartirá online, a través de un programa de enseñanza e-learning.

OBJETIVOS

- Ampliar el conocimiento de los referentes históricos de Euskal Herria.
- Potenciar la capacidad de pensamiento analítico y la distancia crítica en relación a la historia y la memoria histórica.
- Ofrecer una visión rigurosa de nuestra historia, que en la historiografía oficial (como se observa en la denominación de 'Comunidad Foral de Navarra') no se contempla.
- Ofrecer una metodología de aprendizaje que permita la formación en estos temas sin necesidad de abandonar la práctica profesional o la rutina cotidiana, mediante programas de Educación a Distancia.
- Poner en valor referentes que hoy necesitamos:
- Tomar conciencia del valor y las consecuencias de los procesos y sucesos históricos que atañen al sujeto vasco-navarro: derecho pirenaico, instituciones forales, paradigma foral...

METODOLOGÍA

La metodología de la propuesta se basa en la modalidad de aprendizaje e-learning, que ofrece recursos exclusivos que permitirán a las personas asistentes la adquisición de conocimientos y experiencias mediante material didáctico, multimedia, casos prácticos, etc. Las lecciones consistirán en un tema redactado por el/la profesor/a responsable y más material adicional que se pondrá a disposición del alumnado con una periodicidad semanal.

El alumno podrá acceder al material didáctico (tutoriales, material adicional, bibliografía, test de evaluación...) que se pondrá a su disposición en la página web mediante un código que se le asignará al finalizar la matriculación. El material se colgará en la web semanalmente.

El sistema de evaluación del aprendizaje de Nabarralde es continuo; los alumnos deberán realizar un test de evaluación semanal al final de cada tema, que se compondrá de cuatro preguntas tipo test y una pregunta para desarrollar.

MATRICULACIÓN

La inscripción se podrá realizar a través de la página web

www.nabarralde.eus

o llamando al
948 21 10 57.

**Fecha de inscripción:
Hasta el 29 de febrero.**

**Precio:
50,00 euros**

(10,00 euros de descuento para promotores/as de Nabarralde)

'FORUAK' online ikastaroaren VII. edizioa

Martxoaren 4tik 25era

EGITARAUA

1. GAIA: ZER DIRA FORUAK?

Glosarioa, Hiri Forua eta testuinguru historikoa

2. GAIA: NAFARROAKO FORU OROKORRA

3. GAIA: LURRALDE FORUAK

Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Lapurdi

4. GAIA: FORU SISTEMAREN IKUSPEGIA GAUR EGUN

- Zuzenbide Publikoa (Kontzertu Ekonomikoa)
- Zuzenbide Pribatua
- Testuinguru historikoa: gerra karlistak, gamazada...

EDUKIEN ZUZENDARIA: JOSÉ LUIS ORELLA (Deustuko Unibertsitatean katedraduna)

MATRIKULAZIOA

Izen-ematea www.nabarralde.eus
webgunean edo 948 21 10 57 telefono
zenbakira deituta egin daiteke.

Izen-emate epea: otsailaren 29ra arte.

Erigir la nación

Marta Roqueta

Barcelona en Comú gobierna la capital catalana a pesar de no ser la fuerza más votada, gracias a los votos en blanco de tres concejales de Ciudadanos, entre ellos Manuel Valls, y de haber descartado un pacto con una fuerza de izquierdas independentista. En la investidura del presidente español Pedro Sánchez, Podemos y comunes han exigido los votos del resto de fuerzas de izquierda para frenar el trifachito, entre los cuales hay Ciudadanos, y han equiparado el *no* de la CUP y JxCat con el *no* de Vox.

Barcelona en Comú y Podemos sostienen de forma coherente las dos decisiones sin que les caiga la cara de vergüenza porque tienen un proyecto nacional que toma como marco de referencia un Estado ya constituido. Sí, se trata de un proyecto, la república federal española, tan factible como que Elvis, mi felino capado, deje embarazado al osito de peluche que se calza tres veces cada mañana. Sin embargo, el proyecto de comunes y podemitas puede ser

defendido porque las estructuras que lo sustentan, y el nacionalismo banal que justifica la cosmovisión desde donde pretenden construir la estructura territorial e institucional, ya está construido. Ciertamente, a Podemos y a los comunes no les gusta que el Supremo se pase por el forro las decisiones de los tribunales europeos o que Mossos y fuerzas de ocupación zurren a independentistas. Pero también es verdad que para desarrollar sus políticas se basarán en las instituciones levantadas por el Régimen del 78.

Ot Bou apunta en *Vilaweb* que el drama de la izquierda española es que no puede gobernar sin oprimir, porque la unión que mantiene España grande y libre es antinatural, con un centro que absorbe toda la energía de una periferia que mira al mar, a los Pirineos y al resto del continente. Como he escrito, la principal diferencia entre los partidos españoles es cómo mantenerla unida: el trifachito, como soldados, con mano dura; el PSOE, como burócratas, con la ley, y Podemos, como activis-



tas, con derechos sociales. No es casualidad que el periodo progresista español que se supone que inauguramos haya venido precedido por la tradicio-

nal represión al pueblo catalán. Como dice Ramón Grosfoguel, cuando situas la cuestión nacional en el centro del tablero de juego español, el PSOE es tan

extrema derecha como Vox. El PSOE, y no los de Abascal, creó a los GAL, un grupo paramilitar que asesinaba a personas de una etnia diferente.

El poeta y el pastor

Rafael Argullol

Dicen que Petrarca prefería un texto original griego que había comprado a un comerciante bizantino que toda su poesía. Si esta preferencia fuera cierta –cosa que no sabremos nunca–, otorgaría una humildad extraordinaria al poeta que, al menos durante dos o tres siglos, tendría más influencia en la cultura europea: a principios del siglo XVII Shakespeare continuaba siendo petrarquiano. Lo que no se puede dudar es que Petrarca tuvo una pasión sin límites por la antigüedad clásica y fue uno de los primeros exploradores de lo que después se llamaría humanismo, que, más que una escuela filosófica, fue una sensibilidad y una actitud caracterizadas por la voluntad de construir una civilización nueva bajo el patrocinio del pasado clásico.

En esta perspectiva Petrarca es una especie de Jano bifronte, con un ojo clavado en el futuro y otro en el mundo antiguo. Gracias a esta doble percepción elude la pura añoranza y apunta hacia la humanidad nueva que procla-

Dicen que Petrarca prefería un texto original griego que había comprado a un comerciante bizantino que toda su poesía

mará el Renacimiento. Esta bifrontalidad también se pone de manifiesto en el uso conjunto del latín y de la lengua vulgar. Su construcción literaria más sobresaliente, el ‘Cancionero’, junto con la belleza excepcional de la forma poética, culminada en el soneto, nos ofrece una completa cosmovisión en torno a la mitificada Laura, el eje alrededor del cual gira el mundo Petrarca. Es evidente que la elección de la lengua vulgar, en lugar del latín, decidió la fortuna posterior del poeta.



Pocas obras literarias superan los sonetos petrarquianos. Durante una época fui un lector asiduo de ellos. Sin embargo, ahora, cuando pienso en Petrarca, no me vienen tanto a la cabeza los poemas o las reflexiones humanísticas como la carta que escribió para describir

su ascenso al Mont Ventoux, en la Provenza. Y de esta carta tampoco recuerdo tanto la alusión que hace a las ‘Confesiones’ de San Agustín como la anécdota con el pastor que se encuentra a medio camino y que se extraña de la escalada de Petrarca hacia la cima.

El pastor dice al poeta que en la cima no hay nada. El poeta, en cambio, espera, casi, encontrarse a sí mismo. Y hay días que tiene razón el poeta y otros el pastor.

ARA

La única opción que tiene el independentismo para contrarrestarlo es crear un proyecto nacional. Como detallo en la revista *Catarsi*, el independentismo tiene que aprovechar el potencial de la nación para cohesionar una sociedad plural bajo la reflexión de saber de dónde se viene y hacia dónde se va. George Orwell decía que quien controla el pasado controla el futuro, y que quien controla el presente controla el pasado. PSOE y Podemos se sustentan en el mito de la Transición para crear un relato histórico marcado por el eje izquierda-derecha que esconde aquello que ha caracterizado el estado español desde su concepción: el dominio de Castilla sobre el resto de naciones. El independentismo no tiene relato propio. Por eso, como demuestra el último artículo de Joan Tardà en *El Periódico*, compra acriticamente la cosmovisión del españolismo cultural de izquierdas, centrando el debate sobre la supervivencia de Catalunya en la tradicional lucha contra los nacionalismos periféricos tribales que, en el caso catalán, encarna el pujolismo. El relato sirve, con éxito, para difuminar aquello que afirma Kristen Ghodsee: las libertades políticas básicas no

se pueden intercambiar por un puesto de trabajo.

Un nacionalismo catalán abierto y propositivo facilitaría un enclave desde donde articular un relato propio. Compartiendo lo que escribe Albano-Dante Fachin en *Fot-li Pou*, con un relato nacional es más fácil desenmascarar la farsa que ha sostenido la investidura de Sánchez: si mantener la extrema derecha fuera de las instituciones hubiera sido tan importante, el gobierno del PSOE y Podemos habría reconocido el derecho de autodeterminación de Catalunya. Con las presiones a la CUP, JxCat y ERC, han evidenciado que prefieren una España ultra a una de rota.

El proyecto nacional catalán habría ido muy bien en pactos municipales. Se podrían haber hecho alianzas con el PSC y los comunes bajo la condición que aceptarían el derecho a la autodeterminación y rechazarían la ocupación de Catalunya. Habría estado más fácil apartar de la política local todos aquellos cargos independentistas que han participado en redes clientelares o de nepotismo. Se habrían desactivado las pulsiones revanchistas entre actores

No es casualidad que el periodo progresista español que se supone que inauguramos haya venido precedido por la tradicional represión al pueblo catalán

independentistas y, además, se habría facilitado la creación de la República catalana.

A diferencia de comunes, podemitas, socialistas, populares, ciudadanos y los fascistas miserables de Vox; juntistas, erquies y cu-paires no tienen un estado a su servicio. La República catalana existe cuando se la defiende, o cuando la ciudadanía ve las acciones que se desarrollan en su nombre. La falta de proyecto y, sobre todo, de una orientación a la hora de movilizar los recursos materiales disponibles, es un error que el independentismo va arrastrando desde que cogió impulso en el 2012 y que se ha agudizado a raíz de la incompetente gestión de los resultados del referéndum.

El partido más votado en Catalunya en las elecciones españolas fue ERC. Perdió unos 150.000 votos por el camino, pero ganó. El partido independentista más votado en las catalanas fue Junts per Catalunya. Ambos tienen legitimidad para desarrollar las estrategias que crean convenientes. El problema del independentismo, inmerso en una fase reactiva en que ya no propone nada y, por lo tanto, no exhibe su poder, es

que no tiene un marco nacional de referencia compartido. Eso hace que los pasos que sigan cada uno de sus actores —tienen que dar diferentes; representan sectores sociales diferentes— impacten pero no sumen. Ahora rebotan en el tiempo y el espacio como una pelota de pinball. Si generan un resultado positivo, no se puede aprovechar del todo.

Así pues, hay que crear espacios para compartir y ejercer la nación catalana. Si no, es muy difícil que el independentismo salga adelante, viendo las pueriles batallitas entre los partidos que, supuestamente, están en el Parlamento para velar por los intereses de un proyecto que trasciende sus frágiles egos. Hay que construir una nación libre. De momento, la tenemos presa.

EINacional.cat

Barricadas

Manuel Delgado

Toda ciudad se nutre de lo mismo que la altera. Esa es la ley secreta que organiza las ciudades. Será por eso que es inevitable que la historia de cada una de ellas sea la historia de las agitaciones que conocieron sus calles. Bien cerca en el tiempo, los últimos meses de 2019 el mundo conoció nuevas pruebas de ello. En tan solo unas semanas estalló la rabia colectiva en Hong Kong, La Paz, Santiago de Chile, Tegucigalpa, París, Bogotá, Quito, Beirut, Barcelona... Al margen del contenido de las protestas, en todos los casos se produjo una apropiación insolente de la trama urbana que repitió una misma técnica destinada a su bloqueo: la instalación de barricadas.

Hace poco, Luana Raiter y Pedro Benatton publicaban en portugués, en una compilación sobre la calle como escenario para el conflicto —*Jogo da guerra* (Prefectura de Florianópolis)—, el apartado que Auguste Blanqui, en su tratado sobre el arte de la insurrección, dedica a la

construcción de barricadas, que formula desde el punto de vista de la arquitectura en un sentido literal: ligera inclinación, entablamiento paralelo a la base, ligera inclinación, aberturas regularmente espaciadas... Su función: cerrar una calle formando una estructura unificada de defensa casi permanente. Muchas de las más de 600 barricadas que se levantan en la Comuna de París en 1871 son concebidas como proyectos de obra pública, con su correspondiente director de obra, que sigue los trabajos desde el principio.

La barricada constituye un ejemplo de intervención de ingeniería popular efímera, destinada a interrumpir los flujos urbanos y yugular sus canales. Su instalación responde a un proyecto de control sobre el espacio urbano que imposibilita o dificulta el desplazamiento de elementos considerados indeseables. Han sido la forma de arquitectura popular efímera más característica y más simbólicamente elocuente de la historia de rebelión de las ciudades contemporáneas.

Las barricadas han sido la forma de arquitectura popular efímera más característica y más simbólicamente elocuente de la historia de rebelión de las ciudades contemporáneas

A nivel histórico, las primeras barricadas —de *barrique*, barril o tonel— fueron posiblemente las que sirvieron a los parisinos para defenderse de los mercenarios de Enrique III, en mayo de 1588, durante la octava guerra de religión. Su inicio, el día 12, se conoce como *journée des barricades*. En cualquier caso, lo que es indiscutible es que aparecen recurrentemente en las grandes revoluciones urbanas del siglo XIX como instrumento y como emblema de la lucha urbana. Estas construcciones —a las que Baudelaire llamaba “adoquines mágicos que se levantan para formar fortalezas”— servían de parapeto, pero también de obstáculos cuyo emplazamiento actuaba como un sistema de presas que interceptaba las presencias intrusas detectadas moviéndose por los canales urbanos.

Un conocido himno revolucionario —*A las barricadas*— se ocupó de resaltar ese protagonismo de la barricada, uno que no era ni es solo de orden instrumental, sino también simbólico. Pierre Sansot, en *Poétique de la ville* (Armand Colin), hacía notar como

la barricada evocaba la imagen de una subterrneidad urbana que emergía como consecuencia de una especie de seísmo desconocido. La barricada asumía, así, la concreción física de una ciudad literalmente levantada. Henri Lefebvre, en *La producción del espacio* (Capitán Swing), impresionado por el espectáculo de la revuelta estudiantil del mes de mayo del 68 en París, veía en ella un instrumento espontáneo de renovación urbana, la expresión de una voluntad absoluta de modificar no solo el espacio físico, sino también el espacio social. De su valor como metáfora da cuenta su uso musical, de la fascinante *Barricades mystérieuses*, de Couperin, una pieza para clavecín compuesta en 1717, a uno de los grandes grupos de rock urbano de los 80, Barricada.

Artículo completo en nabarralde.eus

Zegamarraren euskalduntasuna

Joxe Manuel Odriozola

1976ko liburu batetik abiatuko gara Joxe Azurmendiren euskalduntasunak dituen ezaugarri batzuk aletzeko (*Zer dugu Orixeren kontra*). «Baina Bonaparte Printzea ere euskaltzale handia izan genuen. Urkixo ere bai... Eta, halaber, gure judizioak zorrozten hasi ginenez gero, ikasi behar izan dugu, euskaltzale eta *vasófilo* izatea ez dela abertzale izatea. Aresti euskaltzale garbia zen; baina abertzale ere ba ote zen, ez dago oso garbi nonbait, batzuek ezetz eta besteek baietz frogatzeko hainbeste lan hartu beharra dagoenean. Eta euskaltzale fina zenez gero, abertzale ere bazela, batetik bestea atera nahi izatea, bide okerra iruditzen zaigu, okerrik bada».

Euskalduntasunaren jatorrian ez dugu euskaldun izateko kontzientzia nazionalik antzemango. Nazio kontzientziaren aurretik kontzientzia etnikoa edo nazio kulturalaren identitatea egon ohi da eskuarki, eta kontzientzia eta identitate mota horren bilakaeraren orientazio politikoak finkatuko du dena delako komunitatearen patua: hartara, estatu nazional bat eraikiz buka dezake jatorrizko komunitate kulturalak, edota estatus politiko etniko hutsen gera daiteke estatu hedakor batek irentsi duelako.

Euskal Herriaren kasuan euskaltzale espainolen edo frantsesen profilak harritu izan gaitu, baina euskalduntasunaren eredu hori gailentzea bere alternatiba (euskaltzale abertzalea) nagusitzea baino errazagoa izan da normalean. Izan ere, nazio okupatu eta minorizatu baten historian zirriboratu dugun trantsizioa ezin da baldintza nazional eta politiko normaletan egin. Jatorrizko nazio kultural minorizatua nazio politiko (estatua) bihurtzeko baldintzarik ez dagoenean, prozesu hori eragotzi duen estatu nazional etnozidaren nazio identitatea izan ohi da *de facto* dagoen aukera bakarra. Iparraldean bilakaera hori ia osorik bete da, eta Hegoaldeko eskualde erdaldunduetan ere bai; bien arteko aldea, abertzaletasunaren garapenaren zer-noiz-nolakoak markatu du.

Menpeko egoera horren ondorioz, euskaltzale espainol edo frantsesen hizkuntza politika nazio politiko euskaldunaren ukapenean oinarrituriko euskalduntasuna da, nahiz eta dena delako euskaltzale ez-abertzaleak asmorik zintzoenak izan. Hauen jokabidea inozo samarra izan daiteke batzuetan; hain zuzen, hizkuntza baten normalizazioa nazio politiko baten normalizaziotik bereizteko joera ideologikoa izan ohi dute. Horietako batzuen kasuan, beraz, halako xalotasun bat izan liteke arrazoia; beste batzuen ar-



Nazio kontzientziaren aurretik kontzientzia etnikoa edo nazio kulturalaren identitatea egon ohi da eskuarki

tean, berriz, nazionalismo espainolistaren edo frantsesaren supremazia ideologikoa.

Bidenabar, erantsi dezagun, gaurko euskal idazle on batzuen euskalduntasuna etnonazionalismoaren edo nazio kulturalaren fasean ainguratua geratu dela (motiboak hemen ere bi eratakoak izan litezke: inozoarena eta jakinaren gainean dagoenarena), eta, ondorioz, hauen euskalduntasuna nazio politiko menderatu baten ezpalekoa da. Txit bitxiak dira hain nabarmena den kontrasteen politiko eta nazional bat

disimulatzeko erabili ohi dituzten argudioak.

1979ko liburu baten arrastoan gatz oraingoan (*PSOE eta euskal abertzaletasuna*). «Eibarko sozialistek euskaraz hitz egiten zuten beren artean eta —*La experiencia socialista en España, vista desde mi pueblo* liburuan Toribio Etxeberriak dioskunez, euskaltzale fina eta ohorezko euskaltzaina bera— tradizioa eta folklorea kultibatzen zituzten. Halere, beren euskalduntasun naturala, jatorra, sekula ez zen kontzientzia politiko bat osatzera iritsi, orduko pentsaera sozialistaren azpian lotuta».

Beste hitz batzuetan esateko, PSOEn hizkuntza politikak proposatzen zuen eta duen euskalduntasunak muga jakin batzuk ditu. Euskalduntasunak ezin du nazio politikoarena izan, eta, hortaz, nazio hizkuntzaren funtzioak, estatusa eta eskubideak hemengo espainolei dagozkie soil-soilik. Euskaldunok nahikoa dugu nonbait euskararen funtzio, estatus eta eskubide ez-hegemonikoak izatearekin. Alegia, nazio-funtzio hegemonikorik gabeko mintzaira etnokultural batean bizitzera kondenatzen gaitu nazionalismo espainolistak.

Artikulu osoa
nabarralde.eus

ETBren teleberriez kokoteraino

Juan Martin Elexpuru

Horrelatsu imajinatzen dut alderdi jeltzalearen propaganda arduradunen, barka, komunikazio batzordearen asteroko bilera; erdaraz, jakina:

«Lehendakariarekin hasiko gara, beti bezala. Astelehen goizean Euskal Y-aren obrak bisitatuko ditu. Jon Koldo, joan prestatzen hitzaldia. Eguerdian Gernikatik pasa daiteke, Azoka Eguna da eta. Baserritarrei eskua ematen eta sagarrak erosten; adierazpenik gabe, irudiak bakarrik. Asteartean Gasteizen egon beharra dauka, baina kamera joan dakiola; autogobernu ponentzia bide onetik doala eta estatus berria aurrerapauso handia izango dela Euskadirentzat. Asteazkenean *Aita Mari* erreskate barkuari bisita».

Horrela, aste gutzirako irudi lanak izendatuko zaizkio lehendakaria-

ri. Gero Arantxa Tapiaren txanda. Astelehenean *Meet Basque Country* Kongresua inauguratuko du Donostian; asteartean *Basque Industry 4.0*, Bilbon; asteazkenean, ostegunean... Igandean, aspaldiko partez, ez dago alderdi ekitaldirik, eta ez dakite nora bidali. «Mondejuaren eguna da Zaldibian. Epaimahaian jarriko bagenu?», proposatu du Eguzkiñek. «Eta ez bazaizkio gustatzen? Astunak dira gero mondejuak!», erantzun dio Jon Koldok. Azkenean, igandean jai ematea erabaki dute, meza telebisatuan epistola irakurtzen jartzea ere ez zaie ideia ona iruditu-eta.

Madrileko Klimaren goi bilera dela-eta, astelehenean Gasteizko alkatea joango da bere hiria munduko *grinkapital* berdeena eta bakarra dela esatera; asteartean Donostiakoa, oraindik ez baina laster, metroa, tranbia eta AHTa martxan jarritakoan, hiri jasagarrietan jasagarriena izango dela aldarrika-

tzera. Ortuzarri esango diote argi egoteko, *De Miguel kasuan*, Katalunian edo Madrilan nobedaderen bat sortzen bada berea izango dela-eta lehen balorazioa. Gero, bigarren mailakoak lotu dituzte, egunegun eta pertsona pertsona. Filosofia: dena ondo doa, ekonomia gora, langabezia behera. Eta zerbait gaizki badoa, konponbidean dago, lasai. Dena zehaztu dutenean albistegien arduradunari helarazi diote programa.

Agian pasatu egingo nintzen koloreekin koadroa margotzerakoan, baina askotan errealtateak gainditu egiten du irudimena, eta auskalo hau ez ote den horren adibidea. Lagunartean gaia ateratzen denean honelakoak entzuten dira: «Ez dut bost minutuz ere jasaten»; «*zapping* egiten dut; nahiago dut beste edozein telebistatako albistegia edo *La que se acerca*-ko pailazoak ikustea»; «kezkatuta omen daude audientziarekin». ETTB (Euskal

Tapia Telebista) birbataiatu zuen *Gara*-ko komikilariek, eta beste izen ironiko batzuk ere entzuten zaizkio jendeari, hona ekarriko ez ditugunak.

Nora begira dago oposizio sozial eta politikoa, EH Bildu batez ere, hau indarrez eta modu sistematikoz ez salatzen? Hain gauza nabarmena izanda, ez da ikusten ekimen eta jarraipen zehatzik. Erraza da hau kuantifikatzea; aski da pertsona bat erlojuaz albistegiak ikusten, neurtzen eta oharrak hartzen ipintzea. Eta datuak eskuan, salaketak egitea eta kontuak eskatzea. Ala jubilatuak bezala astero elkarretaratzeak egiten hasi beharko ote dugu EITBren aurrean?

Telebistako kazetariak ez dute honen errurik; lehen biktimak eurak direla ere pentsa daiteke, eta bat baino gehiago esandakoa-ekin identifikatua sentituko dela ere bai. Baina agian eurek ere egin

beharko lukete zerbait, nahiz eta jakin arriskueta sartzan direla.

Ziur asko, lagunak egiten ari gara beste behin ere, baina jeltzaleek ez lituzkete gaizki hartu behar honelako oharrak. «Bakoitzak bere opilari su», dio esarak, eta agian ulergarria da agintean dagoen alderdia txingarrak bere aldera eramaten saiatzea, baina konturatu behar dute aspaldian opilak erre beharrean kiskali egiten dituztela, eta kontu handiagoz ibiltzea komeni zaiela, etxekoen zein auzokoen haginak eta urdailak izorratu nahi ez badituzte.

Azken batean, denon artean ordaintzen dugun telebista publikoak dihardugu.

Berria

EGUNEKO ARGAZKIA



Ursuako jauregia, 1932an (Bozate auzoa, Arizkun, Baztan)

El despoblamiento rural

El desplazamiento de la población hacia las ciudades es una de las tendencias que la Globalización señala en la actualidad. La existencia urbana se impone, por calidad de vida, oportunidades de trabajo, facilidades de escolarización, atención sanitaria, servicios, etc. Con ello, en pocas décadas, el abandono del mundo rural ha dejado fuera del marco cotidiano todo un legado de referencias del patrimonio de los pueblos: el mismo territorio, el paisaje, la arquitectura tradicional (casonas, fuentes, iglesias, palacios, caseríos, castillos, bordas, fábricas, molinos, hornos de cal, pozos de hielo...), la cultura, los oficios ancestrales, el cuidado de montes y ríos, caminos, bosques, la transmisión del idioma y su sentido antropológico, que debe adaptarse a nuevos tiempos y tareas, el contacto con los animales y la naturaleza... Todo ello ha desaparecido en pocos años de nuestro horizonte vital. Sin contar, además, la problemática que plantea a quienes permanecen en esos pueblos, en términos de soledad, abandono y dificultades de todo tipo. Es un tema de reflexión que no se puede eludir.

Argazkia: Iñaki Agirre bilduma

Biziminez

Eneko Bidegain

Zuhaitzak biluzten diren urtarok eramaten ditu adiskide anitzen biziak, haizeak hostoak bezala. Zenbat artistak ez du eman azken hatsa udazken hondarrean edo neguko hila-bete hotzetan? Denak ez dira, bizi luze eta emankorraren bukaerara heldu ondoan, ufada ahul batek bultzatuz erortzen direnak.

Ustekabeen udako ekaitz bortitzak eraman dituen zuhaitz lerdenak ere erortzen dira, edo denbora gabe ihartu direnak. Euskal kulturak izan ditu bere dolu egunak 2019an. Besteak beste, joan zaizkigu Iñaki Garmendia Laja trikitilaria, Iñigo Muguruza musikaria eta Jon Lopategi, Patxi Iraola eta Jon Barberena bertsolariak. Batzuk beren biziaren udazkenean, beste batzuk oraino udaberrian edo uda hastapenean. Baina denak joan dira uzta aberatsa utzirik.

2019ko abenduak kendu digu, isil-isila, euskarari, euskal kulturari eta bertso munduari, isil-isila anitz eman dion lagun bat, Eliane Mendiburu, oraino anitz emate-

ko adinean zegoena, eritasunak ez balu berekin hartu.

Urte bat zuen doi-doi Bertsularien Lagunak elkarte, Euskal Herriko bertso mundua eta Euskal Herria bera dolutan utzi zuela Aitor Sarasuaren heriotzak.

Jon Lopategik lan handia egin zuen bertso eskolak sustatzeko Bizkaian. Onintza Enbeita, Igor Elortza, Unai Iturriaga eta beste hainbat bertsolari ezagunen irakaslea izan zen. Bertsolaritza belaunaldi berrietara zabaltzeko giltzetako bat izan zen.

Aitor Sarasuak lan handia egin zuen Ipar Euskal Herriko bertso eskolak eta bertsolari gazteak sustatzeko. Lehenago, zaharrekin batean desagertuko zen kultura adierazpen gisa ikusten zena, modernizatu zuten, eta gero eta haur eta gazte gehiago bildu zuten bertsoaren sura. Aski da ikustea zenbat lagunek parte hartu duten, aurten ere, Xilaba txapelketan.

Lan horri esker, Bertsularien Lagunak elkarte eta Bertsozale Elkarte elkarte dinamikoak, parte-hartze zabalekoak eta ere-

Ustekabeen udako ekaitz bortitzak eraman dituen zuhaitz lerdenak ere erortzen dira, edo denbora gabe ihartu direnak. Euskal kulturak izan ditu bere dolu egunak 2019an

dugarriak dira Euskal Herrian. Eta elkarte horretan anitz inplikatu zen Eliane Mendiburu, bertso eskoletako haurren beste guraso anitz bezala. Eliane, langile isil bezain suharra, maitagarria, maitatua, beti irri ezta ahoan, Ipar Euskal Herriko hainbat erai-kinen eta ikastolaren arkitektoa, militante apal eta nekazina, huts handia utziko duena denen bihotzetan eta herrigintzan. Herri zauritu hau engoitik hila legoke, ez balitu Eliane bezalako milaka erizain, arduraz, gogo onez eta proiektoreetatik kanpo lanean ari direnak. Haien izenak ez da izaten oroitarrik edo Wikipediako sarrierarik, baina eguneroko langile horiek herri honen ohorea merezi dute.

Baina norbait hil arte igurikatu behar ote dugu esker ona adierazteko? Mundutik joan direnek ez dute entzuten haien ohorezko solasik, ez ikusiko negarrik, ez sentituko hil aitzin ukan ez zuten besarkadarik. Eta bizirik gauden artean, eguneroko tarrapatak harapatzen gaitu, aspaldiko adiskideetatik urruntzen gaitu, hurbilekoekin esker txarrekoak gara maiz eta kostatzen zaigu adieraztea ingurukoak zenbat maite di-

tugun. Ikaratzen du pentsatzeak ustekabeen harrapa gaitzaketela herioaren aztaparrek. Eta ez ote digu ikara horretaz ohartzeak ematen indarra, biziaz ahal bezainbat baliatzeko, bihotza irekitzeko, adiskideengana eta ahaidengana hurbiltzeko, agendan tarte bat egiteko noizbehinka eta agur labur batean baizik ikusten ez ditugun lagunentzat?

Zuhaitz biluzietan ikus dezakegu hutsunea utzi duten hostoek eragiten diguten mina, edo laster hostoberrituko diren landareek dakarten bizimina. Beste udazken bat heldu aitzin gozatu beharrekoa.

Enbata

Sorginen immoralitatea, ia bostehun urtez

Iñaki Lopez de Luzuriaga

2019ko ekaineko hauteskundeetan irabazi berritan, UPNko buruak poz batean ziren, ia gehiengo osoa eskuratuta. Boterea *de facto* eskuratzeko eta Nafarroatik tiratzen duen mandoa gobernatzeko, ordea, ihes egiten zieten Iruñeko udalak eta foru erkidegoko aginteak. Oso premiazkoa zuten haiek eskuratzeko, eta ez politika hutsagatik bakarrik, moralagatik baizik. Moralari inork ezin baitio ihes egin, gorriak edo berdeak izango gara, bai, baina *immorala* izatea ez, immoralitatearen kontra, on dateke edozer gauza!

2015eko martxoaren 3an, UPNko Jose Javier Esparzak moralaren premia berretsi zuen Navarra Confidencial buletinean: “Kainismorik ez, lintxamendurik ez, eraispenik ez, esperimendu erradikalik ez, iraganera itzultzerik ez” (esate libre). Simplea, beraz: ordena eta morala. 2019ko ekainean, Nafarroako Gobernua UPN gabe eratzeke zenean, orduan, Jose Javier Esparzak esaten zuen PSN immoral zela, kasu honetan EH Bilduren abstentzioa zuelako. Ana Beltranek (atzean Cayetana Alvarez de Toledoren itzala zuela) bere adierazpenekin babestu zuen: “Chiviteren inbestidura ETAK babesten du”. Moralitatearen

1525eko sorgin ehiza Nafarroako lehen jazarpen handia izan zen

birformulazio batean, Enrique Mayak, oraingoan bai PSNk *mortalasunez* jokatu baitzuen, Iruñeko Udala eskuratu zuen, eta beraz, halaxe adierazi zuen alkate berriak “jende normalaz” inguratuko zela udal gobernurako, eta “Iruñean demokrazian sinesten ez zuen jendearen kontra” salaketak jarri eta polizia bidaliko ziela aurre egitera. *Normaldez* inguraturta zegoenez, bertan behera utzi zuen (besteak beste) aurreko gobernuaren euskararen araudia, eta Katalina Nafarroakoa etorbidea Armadaren etorbide bihurtu zuen berriz ere, normaltasunarengatik.



Bortuen inguruetakoko andre euskaldunak (1530); janzkera hori Pierre de Lancre epaileak debekatu zuen 1609ko Lapurdiko sorgin ehizan, immoral zela

Izan ere, Alonso Manrique Inkisidore Nagusiak... barka, Mariano Rajoy Espainiako PPko buruak, ondo ezarrita utzi zuen doktrina 2006an, seriotasun osoz: “Queremos ser un país normal de gente normal. Éste [PP] es un partido normal”, 2015eko maiatzean presidente zela birformulatu zuena: “España es una gran nación y los españoles muy españoles y mucho españoles”. Normala da espainiarra izatea, harmonikoa, eta hori ez zuten ulertzen burujabetzaren aldeko nafarrek 1523-24an Hondarribiko Setioan, gudu erabakigarri hori galdu zutenean, eta are, Karlos V.a enperadore ahalguztidu-

naren *barkamen* eskaintza jaso zutenean. Ez zuten ulertzen normala zela Bortuetan muga finko bat ezartzea, eta hura zeharkatzea lesa maiestate delitu larria zela (beste aldean *frantsesak* baitzeuden, heretikoak), eta heretikoak zirela burujabetzaren alde eta enperadorearen asmoen kontra tematzen zirenak. Eta hala ez ulertuz gero, neskato pare bat bidaliko zitzaizkiela haien begietan sorginkeriaren aztarna aurkitzera, eta hartara haien bekatua deskubritua izango zela.

Espainiar agintari berrien mehezimendu osokoak eta Nafarroan nor bazirela erakusteko,

Inkiszioa bezain latz edo latzago, Nafarroako Errege Kontseiluak haien ohiko moldean, euskara haien hizkuntzan, bizi nahi zuten nafarrak astindu zituen (Aezkoa, Zaraitzu, Erronkari), eta Kontseilu horretako zigor lanetan aritu zen Petri Balantza, Unzuen jauregi eder baten jabe. Ez bakarrik Auzitegi Nazionalak... barka, Espainiako Inkiszioak, Europako agintari berriek ere, eroso ikusi zuten sorginen mamua xaxatzea eta bazterrotan sorginak aurkitzea eta, horrelaxe, XV. mende amaiera arte sorginetan sineste heresia zen bezala, gaue- tik egunera 1484an sorginak arriskutsu eta jazarri beharrekoak bihurtu ziren, Inozentzio VIII.a aita santuaren bulda bati esker. *Immoralitateari* ezin baitzaio ezikusia egin, sorginkeria heresia bat baita, larriena, baina detektatzen zailagoa, irrazionala, eta horretarako zeuden 7 eta 11 urteko neskato gazte adituak. Orintxu arte nahiko ezezaguna izanik ere, 1525eko sorgin ehiza era horretako Nafarroako lehen jazarpen handia izan zen. Jakizu horren berri gehiago EU Wikipedian.

nabarralde
fundazioa

Eman izena nabarkide izateko
Hazte socio de Nabarralde

info@nabarralde.eus · www.nabarralde.eus · (34) 948 21 10 57 · Bidankoze kalea 3 · 31014 · Iruñea/Pamplona/Pampelune · NAFARROA-NAVARRA-NAVARRA · DLNA: 2449/2005 · ISSN 1885-2181

Izen - abizenak Nombre y apellidos:

Helbidea / Dirección:

Herria / Población:

Posta kodea / Código postal:

Hizkuntza / Idioma:

E-mail:

Tel: Mugikorra / Móvil

Finkoa / Fijo

Kuota / Cuota (12€ Hilero / Mensuales) • **35 urtez azpikoek** / menores de 35 años (8€ Hilero / Mensuales)

Erakundeak / Entidades: (Hitzarmenaren arabera / Según convenio)

Kontu zenbakia / N° de cuenta (IBAN 24 dígito):

ENA / DNI:

Ekarpenak PFEZ aitortzen kengarri dira / Las aportaciones son deducibles del IRPF